



3HI-106/05-P05  
GHI-107/05-P05

TEODORO OLEA ITURREGI EUSKAL  
HERRIKO LURRALDEAREN  
ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO  
IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: Vitoria-Gasteizen martxoaren 29an Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak egindako 2/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

"1.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremani buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Zegamako udalerriko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioen dokumentuaren Testu Bateginaren espedienteak planteatzen duen lurralde-eredua baloratu da, honako hau kontuan izanik:

1) Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak Arau Subsidiarioen analisisan ezarritako baldintzen aldeko txostena egitea, honako puntu hauetan izan ezik:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean aditzera ematen diren atzerapenak bete beharko dituzte lurzoru urbanizagarriko etorkizuneko Plan Partzialek. 16. eremuan (Gozategi) zein 19. eremuan (Ibarreta), Testu Bateginak ezarri beharko du eraikuntzak 12,00 metroko gutxieneko atzerapena errespetatu beharko duela Oria ibaiaren ibilguarekiko eta urbanizazioak 2,00 metroko atzerapena errespetatu beharko duela.

2) Ez zaie eragozpenik jarriko Testu Bateginean txertatutako zehaztapen berriei.

TEODORO OLEA ITURREGI,  
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL  
PAÍS VASCO.

CERTIFICO: Que, en la Sesión 2/2007 de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada en Vitoria-Gasteiz, el día 29 de marzo, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que formaban la mayoría absoluta de los miembros el siguiente acuerdo:

"1.- Informar el Modelo Territorial planteado por el expediente el Texto Refundido del documento de Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal del municipio de Zegama, de conformidad con lo establecido en la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, en la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de los Territorios Históricos, en los siguientes términos:

1) Informar favorablemente el cumplimiento de las condiciones impuestas por la COTPV en su análisis de las NNSS, salvo en los siguientes puntos:

- a) En el suelo urbanizable se deberá imponer a los futuros Planes Parciales los retiros señalados en el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Márgenes de los Ríos y Arroyos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Tanto en el Área 16 Gozategi, como en el Área 19 Ibarreta, el Texto Refundido deberá establecer la necesidad de que la edificación respete el retiro mínimo de 12,00 metros y la urbanización de 2,00 metros con respecto del cauce del río Oria.

2) No poner objeción a las nuevas determinaciones incorporadas en el Texto Refundido.



3) Uren arloan:

Espedientearen aldeko txostena egitea, baldin eta honako betekizun lotesleak betetzen badira –2005eko urriko txostenean adierazitakoarekin bat etorrira–:

- AIU-19 Ibarreta eta AIU-16 Gozategi eremuak garatzen dituzten Plan Partzialetan ezarri beharko da 500 urteko birgertatze-aldian urpean geratzeko arriskuaz kanpo dagoen kota batean kokatu beharko direla onar daitezkeen hirigintza-aprobetxamenduak. Horretarako, azterlan hidraulikoa eta ingurumen arlokoa egin beharko da, ingurunean aurretik dagoen urpean geratzeko arriskua inola ere areagotuko ez duten eta ingurumen arloan ezar daitezkeen neurri zuzentzaileak definitzeko eta ezartzeko.
- Jabari publiko hidraulikoan eta haren zortasun-zonan edo polizia-zonan (azken kasu horretan uholde-arriskua kontuan izanik) eragina duten *Zegamako Arau Subsidiarioak berraztertze Testu Bateginaren* ondoriozko jardunen kasuan, behar-beharrezkoa izango da Arroko organismoaren administrazio-baimena lortzea –Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko Gipuzkoako Lurraldeko Bulegoan bideratu beharko da baimen hori–.

II. Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari igorriko zaizkio ziurtagiri honi gaineratzen zaizkion Uren Zuzendaritzaren txostena (I. Eranskina) eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren txostena (II. Eranskina).”

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko martxoaren 29an.

3) En materia de Aguas:

Informar favorablemente el expediente de modo condicionado al cumplimiento de los siguientes requisitos que contarán con carácter vinculante, en coherencia con lo expresado en el informe de octubre de 2.005:

- En los Planes Parciales que desarrollen las áreas A.I.U-19 Ibarreta y la A.I.U-16 Gozategi la ubicación de los aprovechamientos urbanísticos permisibles se deberán desarrollar a una cota tal que quede exenta del riesgo de inundación para el periodo de retorno de 500 años, para lo que se exigirá un estudio hidráulico y ambiental de detalle que defina y justifique medidas correctoras ambientalmente asumibles que no agraven, en ningún caso, la inundabilidad y el riesgo preexistente en el entorno.
- Las actuaciones que deriven del *Texto Refundido de la Revisión de Normas Subsidiarias de Zegama* que afecten al Dominio Público Hidráulico o su zona de servidumbre o policía (en este último caso dada la presencia del riesgo de inundación), requerirán la pertinente autorización administrativa del Organismo de Cuenca, que deberá tramitarse en la Oficina Territorial de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de Gipuzkoa.

II. Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente los informes de las Direcciones de Aguas (Anexo I) y de Patrimonio Cultural (Anexo II) que se acompañan a la presente certificación.”

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 29 de marzo de 2007.

IDAZKARIA/ EL SECRETARIO



Izta.: Teodoro Orendu Irregi.: Fdo.